

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 imp. R. Fernández J. Arana 27. 494

8. zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1986ko Azaroa

KAI BERRIA EZ? KAI BERRIA BAI?

Aspaldi honetan gai eztabaidatsu gertatu dela esan dezakegu **kai berriaren luzatzea ala ez luzatzea**, bai alde edo kontrako posturak ondorio desberdinak eta garrantzi haundikoak ekarri ditzakelako herrira.

Gure asmoa hemen ez da gai horretan sartzea, alde edo kontra jartzea. Guk, hitz gutxitan, orain arte emandako pausok agertuko ditugu.

1957an hasi zen kai berriaren luzapenaren eztabaida. **ONDARRIBI** aldizkariak, 1959ko apirilaren 18an, kai berriaren krokisa zekarren, Udalak erabakia hartzeko eskatuz kontzejalei.

Ordu ezker 27 urte igaro dira, eta oraindik ez da agortu gaia. Iparraldeko dikea egin zen, duela 10en bat urte. Orain horren luzapena eztabaidatzen da. Gasteizko Gobernuak prest dago luzatzeko, hego aldera zati bat luzatuz, baina Hondarribiko Udalak ez omen du garbi ikusten horrek hondartzari ekarri dezaiokeen ondorioa, eta orain arte ez du erabakirik hartzen. Gaia ateratzen den bakoitzean, mahai gainean uzten du, hurrengo batean ikusteko. Jarrera hau ezin dela betirako luzatu, eta bilera bat egin da Santandereen Escuela de Ingenieros de Puertos y Canaleseko Losada jaunarekin, ea kaia pentsatuta dagoen bezala eginge zer, zer gertatuko zaion hondartzari galdetuz.

Erantzuna laburra izan zen: "egin-dako dikeak aldatu duela hondartza %80, eta hemendik aurrera egingo den

guztiaik ezer gutxi okertuko duela gaur-ko egoera".

Koxka guztia honetan dago: batetik arrantzaleek kai haundiagoa behar dutela; bestetik, Hondarribiko hondartzak ahalik eta kalterik txikiena sufri dezala. Bi puntu hauek lotu nahi dira. Eta, dirudie-nez, nahiko zaila da biak elkartzea.

Ikusten denez, arazoa luzea, konprometitua eta zaila izan daiteke. Gogorrena, ordea, erabakirik ez hartzea da, eta utzi eta utzi, inoiz arazoari branka eman gabe.

Zer gertatuko da azkenean? Egingo al da? Ez da egingo? Orain egin dagoen dike berari puska bat kenduko al zaio? Edo espigoi berari moztuko zaio puska? Eritzi guzti hauek pil-pil dabilzala, esan behar.

Jaietako ale berezian, 18n. orrian, SIADECO-ko zuzendariak idatzen zuenez, garbi dago herri bateko ekonomiaren ekilibrioa bilatu behar dela. Honela dio arrantzari buruz: "Hondarribiaren kasuan gauza jakina da arrantzak izan duen eta, bere arazo larri eta guzti, gaur egun ere duen garrantzia. Sektore honek atentzio berezia merezi duela esan beharrik ez dago Hondarribiko ekonomia aldetik, eta ezin dela inolaz ere sakrifikatu beste sektore batzuen alde".

Ikuspegi hau oso interesgarritzat jotzen dugu une honetan, eta eztabaidarako aportazio lagungarritzat.

Bederatzigarren hila betetzen da azaroan, aldizkari honi hasiera eman genio-netik, eta beste bederatzí bider bederatzitan nahi genuke euskarazko lan honetan jarrai.

Eusko Jaurilaritzak berak ere "EUSKARAZ IRAKURRI" kanpainari ekin dio, eta HONDARRIBIA hilerokoa ere hortara ez zuzentzen da, gain zuzen.

Euskaraz mintzatu, idatzi, irakurri, eta pentsatu, orduan izango gara euskaldun.

Ale honetan SANTI GONZALEZ, MARIERRAZKIN, eta hauen bi semeak URKO eta ZIGOR dakartzagu herritarren begietara, Hondarribitik belari batetan irten eta Guayana frantsesera itsasoz iritsi ondoren, orain Pazifikoko zehar Polinesiaara abiatuko direlako. Nolako ibilaldia egin duten kontatzen digute laugarren orrian.

Gainera, nekazaritza, arrantza, kultura, eskola, udala eta beste hileroko sailak ere ikus ahal izango ditugu.

Sail berria ere irekitzen dugu hil honetan: Hondarribiko lehengo izen zaharren eskuratzea eta erabiltzea.



AUZOTAKO BIDEAK

Kaixo, hau ere aipatzeko ordua etorri zait. Denok dakigu gure baserritaraino datozen bideak orain nahi eta non bukatzen diren. Baita noizkoak diren ere bateren batek jakingo du. Bide batzuk 10 urte, beste batzuk 20 edo 30 edo 40 urte dituzte; izango dira gehiago dituztenak ere, 100, 200... Ez gara hasiko orain noizkoak diren aztertzen gure auzotako bide guztiak.

Bide gehienak gure gurasoek eta aitonak eginak izango dira, agian. Nekez eta izerdik asko botata eginak, hori bai. Lehenengo, harrobitik harria ateratu, gero harri hori idipareaz karriatu, eta leku askotan karretillarekin, idiak ezin zirelako pasa. Bidea egin ondoren, bazterretako errekek etabar luzeak egin... Benetan, gaur ikusten ditugun auzotako bideak gurasoen eta gure arbasoen lan eta neke haundiei esker ditugu.

Bidea egin eta gero, bide horiek zaindu egin behar ziren. Eta horri deitzen zioten **pajina**. Pajina, auzo lana zen, auzo osoak hartzen bait zuen parte. Bideko zuloak, bazterretako errekek, lurjauziak, sasiak... dena konpondu behar zen, eta hantxe biltzen ziren auzoko etxe bakoitzetik bat gutxienez, denen artean bidea eroso edukitzeko. Ez zuten soldatarik jasotzen lan horregatik. Borondatez egiten ziren lan horiek, orain baino borondate hobeia izango zelako segururik.

Gaur gauzak asko aldatu dira. Denbora batean, harriz egiten ziren konponketa guztiak. Orduan zer gertatzen zen? Neguko eguraldi txarrenekin ondorio latzak izaten zirela, zeren bideko harri guztia erreketara jauzten zen, eta bidean harrisiak eta zuloak egiten ziren.

Orain bide asko hormigoizkoak egiten dira, edo breaz, baina hau gertatu da: alde batetik, ahalik eta azkarrena egiteko, hormigoi oso mehea bota dela, eta beste-tik gaur ezin garelako orain urte batzuek izan ibili kamioiekin. Lehen baino kamioi haundiagoak daude orain, eta lehengo kamioi txikiak baino leku zailagotara eta alda haundiagokotara iristen dira. Horren ondorioak bistan daude, kamioi haundiak sartzen baditugu, kargarekin leheritu egiten dutela bidea, hormigoi mehea duelako.


Horregatik, dena aurrera doan bezala, gure bideak ere berritu egin behar dira. Eta ez da nahikoa bide sarreteran plaka batzuk jartzea, zeren kamioi txikiak bi bideetan dakartena, haundiak bakarrenean dakar eta merkeagoa da baserritarrentzat, bi porte ordaindu beharrean, batekin egiten dugulako. Gaurko egoerak hori eskatzen du. Eta berdin zubiak, zabaldu eta

indartu egin behar bait dira. Baina ez baserritarren eskutik, Udala edo Diputazioarenetik baizik, beste herri batzuetan egin duten bezala. Hondarribiko Udalak hormigoia edo brea bakarrik ordaintzen du. Guztia egin behar du, eta behin betikoz hasi eta bukatu, ez orain bezala, urtean zati bat. Honela, zati berria konpontzerako, bestea hautsi da. Eta ez pentsa kejak botatzearen ari naizenik, baizik eta hala gertatzen zaigulako baserritarroi.

Bestetik, bide hauek Udalararen edo Diputazioaren eskutan geratu behar lukeke, kaleko bide, errepide eta kaminoen antzera. Guk ere ordaintzen ditugu gure zergak, beste herritarrek bezala, eta guk ez dugu kaleko bideren bat edo espaloiren bat konpontzen dutenean, kale hortako jenderik lanean ikusten.

Horregatik eskatzen dut baserriar eta kaletarren berdintasuna.

XIMON



TXANDAKO OKINDEGIAK

- Azaroak 16: Arratibel
23: Garmendia
30: Martinez
Abenduak 7: Arratibel
8: Garmendia
14: Martinez
21: Arratibel

Arratibel, Zubieta kalean. ☎ 641975.
Garmendia, Santiago kalean. ☎ 641136.
Martinez, Kale Nagusian. ☎ 641212.

TXANDAKO BOTIKAK

- Azaroak 17-23: Mai
24-30: Iraola
Abenduak 1-7: Erauskin
8-14: Mai
15-21: Iraola

Mai, Alm. Alonso kalean. ☎ 642191.
Iraola, J. Ugarte kaleko 5. ☎ 641027.
Erauskin, S. Pedro kaleko 28. ☎ 641018

OHARRAK

"HONDARRIBIA" ALDIZKARIAREN SALTOKIAK

Aldizkari hau zabaltzen baldin bada, herriko denda eta komertzio batzuri esker egiten da. Dendari hauek doan egiten dute zabalkunde lan hau, eta euren lanari beste hau leporatu diote euskara bultzatzeko borondateagatik. Hileoro egiten ari dira lan hau, eta Udal Euskara Azpitarteak eskerrik beroenak ematen dizkiegu.

"HONDARRIBIA" erosi nahi duenak, beraz, toki hauetara joan behar du:

Mendeluko Estankoa
Mendeluko Arratibel Okindegia
Amuteko Luis Harategia
Amuteko Ana Rosa Mertzeria
Amuteko Ana Janaridenda
Damarriko Leonor Liburudenda
Kale Nagusiko Arritxu Liburudenda
Udaletxeko Bulegoak
Harma Plazako Estankoa

Soroetako Ana M. Agirre Janaridenda
Santiago kaleko Erosle
Lankide Aurrekia
Aurrezki Kutxa Munizipala
S. Pedro kaleko Olearso Liburudenda
S. Pedro kal. Goikoetxea Janaridenda
S. Pedro kaleko Mei Mertzeria
S. Pedro kaleko Gaur Liburudenda
Itsas Etxea
Zuloaga k. Arozena-Albztur Harategia
Zuloaga kaleko Lapitz Estankoa
Sokoako Liburudenda

EGURALDIAREN DATOAK

Bataz besteko tenperatura	16,7
Maximen bataz bestekoa	20,6
Minimen bataz bestekoa	12,8
Temperatura guztiz gorena	27,2
Temperatura guztiz behearena	5,0
Euri litroak	93,8
Egun euritsuak	11
Ordu eguzkitsuen kopurua	121,1

HERRI GIROA

★ Askotan ari gara aipatzen herriko Alde Zaharra zein egoera negargarrian aurkitzen den. Alde horretako kale, etxe, eta enparantzak hain eder eta ikusgarriak izatek, herriko parajerik tristeenera bihurtuz joan dira. Nonahi horma zahar eroriak, kale apurtuak, etxeak zartalduek. Pena emateraino itsutsu da Alde Zaharra... Baina ez betirako. Orain, **Denda Kalea** konponduko dute. Kaleko zoru guztia jasoko da, adokin guztiak banan banan ongi jarriko dira, etabar.

Herriar askoren ustez, Alde Zaharri erabateko konponketa egin behar zaio, eta beste itxura bat eman.

★ **Hondarribiko GURUTZE GORRIAK** argitara eman duenez, urtean zehar 4.000tik gorako zerbitzuak eskaini dizkio herriari azken urte honetan. Horrek esan nahi du, egunoro hamarretik gora direla GURUTZE GORRIAren laguntzak.

★ **Carlos V hotela** izan zen lekuan etxeak egiteko, aldatu egin dira Plan Generalako normak, **lehen hotela** bakarrik egin zitekeela esaten bait zen. Orain berriz, **etxebizitzak**. Hamabi etxebizitza egingo dira (zenbat balioko dute??), eta 24 garaje. Garaje hauetatik, kontratistak hamabi garaje emango dizkio doan (debalde) Udalari, udalak pizkor pizkor egin dituzten tramiteak. Hala ere, orain Foru Aldundira bidaliko dira paper guztiak, eta Diputazioak 6 hilabete ditu baietza ala ezetza emateko.

★ **Ardirik, edo behirik, edo zaldirik, edo** halakorik baduzu, ez duzu etxezuloan gordeta eduki beharrik. Lehen ere gure etxeak nahiko beteak daude, zenezan bat edo zaldiren bat bertan sartzeko, hango muuu! eta lehenengo beee! entzuteko gainera.

Kontuak kontu, Jaizkibel mendiko larrak herriarenak izanik, badugu mendira botatzeko gure abereak, hanxe lasai bizi ditezten. Ardi bakoitzeko 100 pezeta, edo zezen, behei ala zaldi bakoitzeko 1.000 pezeta ordaindu Udalari, eta, noizik eta behin, nola dabilzan ikustera joan, eta kitto.



★ Gutxiñ uste denean, hamaika zorigaitz ekartzen digu itsasoak, eta oraingoan **Pello Alza Laruskaini** tokatu zaio; hamu alu baten ezbeharrez begi bat galdu du. Lehenbait lehen senda dadila opa diogu hemendik arrantzale gazteari.

★ Hirugarren aldiz antolatu da **aurten San Gabriel Egoitzan**, bertan bizi direnen omenez, kulturazko eta musikazko ekintza beteriko Astea. "**Haizehots**" taldeak dantzaldi bat eskaini zion etxeko bizilagunei. **Musikabandak** ere kontzertua eman zien. **Eskifaia** ere beste horrenbeste. **Carlos Iturralde eta Elvira Ubiaren** balleteko ikasleek ere saio bikainak egin. **Trikitia, antzerki eta gauza asko** izan ziren 19-26 Astearen.

Egoitzan, 46 bizilagun bizi dira, **Kariateko 6 mojen ardurapean**.

★ Azaroaren 3tik aurrera, bost astebetetan zehar, **Hondarribiko DYAK** sokorismo eta lehenengo laguntzari buruzko ikastaroa ematen ari da, egunoro, gaueko 8retatik 9tara. Ikastaroan teoriakzko eta praktikazko klaseak ematen dira, istripuek eta ezbeharretan zer egin behar den kolpetik jakiteko. Txalogarriak dira ikastaldi hauek, beharrezkoak ere bai.

★ **Aldizkari honen beste orri** hatetan idatziko dugu **ESKIFAIAK** Tolosan irabazi zituen urrezko dominei buruz. Hemen aipatu nahi duguna, **Budapesteko Budafoki Kamarakorus** abesbatzak azaroaren 4an Portuko elizan eman zuen kontzertu zoragarria. Abesbatza hau 33 neskatxek osatzen dute, eta Tolosan egin den lehia-

ketan **HIRU urrezko domina edo medalla** irabazi zituzten, bat gregorianoa abestuz, eta beste biak polifonia eta folklore sailetan abots berdinetara. **Portuko** elizako kontzertua ahaztu ezina izango da, miragarria delako neska hauen abesteko era. Kantu sail luzea eta ederra eman zuten. Jende asko izan zen entzuten, eta kontzertua bukatuta gero ere, jendea ez zen jeikitzen, hain gustora zegoen.

★ Lehen Butron eta orain Bidasoa Pasealekua. Biak itsasertzean edo Bidasoa ibaiartezean, eta biak ankerzora. Bata guztiz, eta bigarrena ere laister. Badakigu urak txikiro eta apurketa asko egiten duela. Bidasoa ere ibai izatek itsaso bihurtzerakoan bereak eta bi egiten ditu. Olatuek eta uhinek gogor jotzen dituzte herriko horma zaharrak. Butron Pasealekua buruz behera erori zen orain dela urtebete, eta oraindik konpondu gabe dago; Puntalera bideari, berriz, Bidasoa Pasealekua ere zart egiten hasi da, eta neurriak berehala hartzen ez badira, hau ere hor eroriko da.

Bata dela, bestea dela, badugu beti zer bait gure kale, ibilbide eta pasealekutan. Ezin, behintzat, lasai ibili oztoporik egin gabe.

★ **Lasai ibili? Kexa! lurrera begira ez** bazoaz, zakur kaka zapalduko duzu nonahi. Hori pstea! metroz metro zakur kaka mokorloak, espaloi, kale, jardin eta gabiltzan leku guztietan. Noiz arte horrela?

Aitzol

ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidea
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

JUAN ALKAIN JAUREGI E.A.

"SUPRA" eta "DEDIETRICH" en
banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

SANTI GONZALEZ

Gure artean ditugu egun batzu igarotzen, orain dela hiru urte Santiago kaleko euren etxea giltzatz itxi, "Jo-Ta-Ke" izeneko belarian sartu, eta Brasil eta Venezuela arteko Guayana frantsesera iritsi ziren Santi Gonzalez, Mayi Errazkin eta beraien bi seme Urko eta Zigor. Hiru urte herrikir kanpoan egonik, Hondarririra itzulitxo bat egiteko barnemina sentitu zuten nonbait, eta hemen egon dira, senditarte eta lagunartean atsedaldia hartuz.

"Hau ez dela abentura", esan zigun Santik, baina... ontzi txikian mundaurre bi-
ra egitea, nahiko abentura dela iduritu zigun guri.

—Nondik nora bururatu zitzaizuen ideia hau?

—Euskaldunok beti izan dugu itsasoan ibiltzeko deia, eta horri jarraitu nahi izan genion, lehen beste batzuk egin zuten bezala, erantzuten digu Santik.

—Ez zizuen ematen bildurrik?

—Ez, bildurrik ez, baina gauzak ongi ikasi behar dira aurretik. Nik banuen pilotu karneta, eta Mayi Pasaikioko eskolara joan zen estudioak egitera, eta halako bidaia egiteko behar den prestakuntza jabetzera. Ontzirik ere ez genuen, ezta erosteko dirurik ere; orduan zer?, ba egiten hasi, eta egin.


Izango dira zazpiren bat urte Santik barkuaren egiteari ekin ziola. Lurrari buelta eman behar ziola, esaten zigun, eta ez genion sinesten. Baina utsetik hasi, eta eskudakaz eskudaka, hementxe ikusten genuen, Hondarririko ur bazterrean, belautzia sortzen, landaratzen eta multitzen. Polisterrezko ontzi liraina eraikitzen zuten Santiren eskuek, eta, geldi geldi, barku itxura hartuz joan zen. Lau urteko lana izan zen, sendi osoak, guraso eta haurrek parte hartzen zutelarik ontzia egiten.

—Zer zenuten buruan urte haietan?

—Gure deiari jarraiki, joan egin behar genuela, horixe genekien garbi. Hor-
tik aurrera, denborak berak ekarriko zizki-
gun bai problema, bai soluzioak. Guk amets bat genuen, eta amets horren hel-
burua oso hurbil eta, bidebatez, oso urrutu
ikusten genuen. Ontzia hor zegoen eginga,
Kai Berrian, baina gure sentimenduak
ozeano guztietara egiten zuten hega. Une
bat behar genuen salto egiteko, eta horixe
egin genuen, 1983ko abuztuaren 14an,
agur esan etxekoek, adiskideei eta herria-
ri, amarrak askatu, eta Amuitzak eta Hi-
ger zeharkatuz, Ameriketara abiatu.

—Zenbat denborarako abiatu zite-
ten?

—Guk ez genekien noiz izan zitekeen
itzulia. Ez genuen ezertarako presarik. 5
urte? zazpi? hamar? Ez genion mugarik



jarriko denborari. Askatasun osoa ge-
nuen, eta dugu. Badakigu egunen batean
bukatuko dela gure bidaia, eta berriro ere
Hondarririra etorriko garela, baina ez da-
kigu noiz.

—Eta nola joan zatzaizkizue hiru urte
hauek?

—Oso ongi, oso pozik ibili gara, eta
eginarekin ez gara damutu. Gainera, gar-
bi dago, ezta? Berriro ere bagoaz, eta hori
da seinalerik onena.

—Horrela joatean, zalantzarik ez da
jendea zuen hurrekin oroitzen dela. Izan
ere, zuek biok helduak zarete, baina Urko
eta Zigorrek 9 eta 8 urte besterik ez zituz-
ten joan zirenean. Nola portatu dira on-
tziat?

—Kontuan izan ez garela beti ontzian
bizi izan. Legorreen denbora asko egiten
da halako bidaietan. Baina zure galderari
erantzunaz, hauxe esango dizuegu, gure-
tzat ere haurrak zirela ardurarik larriena
ideia honekin hasi ginenaren. Haurrak ha-
zi, haziko dira, baina hezi guk egin behar
ditugu. Oraingo pozik gaude. Guayanan
egunoro joaten dira eskolara. Portugesez
eta frantsesez mintzatzen ongi ikasi dute,
eta bertako jendearekin jator moldatzen
dira. Gainera, Atlantikoko pasadizu luzea
ere ikastolako "debereak" egiten igaro
zuten, eta, besteak beste, herriko edozein
haurrek hainbat dakite. Gainera, zer da
gehiago estimatzen duguna: jakituria ala
gizentasuna? Bizitza gatazka dela kontu-
ratzen dira, elkarren beharra daukagula,
lanean erantzun egin behar dela, adine-
koei kasu, arriskuaz ez dagoela jolas egi-
terik... Gauza hauek ikasteko aparteko
ikastola da itsasoa, eta lau laguneko
"etxe" bakartiarra. Zer axola digu errege
godoen zerrendak? Garrantzitsuagoa de-
la erakutsi diegu gizon izatea, elkarreki-
koak, maitekorrak, ausartak, apalak...

—Bai, horretan arrazoi osoa duzue,
eta ojala guztiok horrela jokatuko bagenu.
Baina beste gauza bat era joaz, arrisku
gogorrik izan al duzue itsasoan edo itsa-
sotik kanpo?

—Behin batean pentsatu genuen,

bai, hura ez zela azkena izan, baina bai
azkenaurrekoa. Mauritaniako kostan zen.
Haraino ez genuen apartekorik izan. Ha-
sieran Lantarotera joan ginen, bidaia
ederra eginez. Han sei hilabete igaro eta
gero, Ameriketaruntz abiatu ginen Mauri-
taniako kosta ingurutik. Egund batez, txo-
paldetik olatu izugarri bat ikusi genuen
txiripaz. Familia kamarotean sartu ordu-
rako, olatua txopatik brankara pasa zitza-
gun arrapatu zuen guztia eramanez, lema
ere bai. Deriban egon ginen hiru egune-
tan. Nolabait jo genuen Senegalera, bai-
na gau batean, laino zerratu zerratu zela,
Koreako arrantzatut batek jotzen
gaitu sahietsetik, eta, besteak beste, bela
hausten digu, itsasora boteaz ohiala. Han
geratu ginen kolpe ederrarekin, belarik
gabe, tosta hautsia. Orduan pentsatu ge-
nuen azkenaren aurrekoa izan zela. Hura
sustoa! Baina barkua eria ikusi arren, ez
genuen moralik galdtu eta, hala hola, Da-
karrera iritsi ginen, gu baino okerrago
aurkitutako bi naufragorekin.

—Eta Dakarretik Brasilera zenbat
egunetan joan zineten?

—Hogeiatalau egunegin genituen.
Lehenengo hamaseietan apenas jo zigun
haizeak eta ia geldi egon ginen. Hainbe-
ste egunen buruan, Ameriketako konti-
nentea begiztatu genuen, Brasill Hura
poza, haurrek batez ere, Fortalezako ba-
dian fondeatu, eta lagun baten etxean pa-
sa genituen egun batzuk. Handik goraka
joan ginen, eta Amazonaseko ibai ikusga-
rriaren barrera sartu ehundaka kilometro-
tan. Haiek laberintoak! Azkenik Guaya-
nan geratu ginen, eta orain hara goaz,
"Jo-Ta-Ke" hartu eta Karibe guztia ikusi
ondoren, Panamako itsasartea igaro, Pa-
zifikoa alde batetik bestera egin, eta Poli-
nesian denboraldi bat igarotera.

Hori inbiriaren ematen duguna sendi ho-
nek, baina... balio ere balio egin behar
horrela ibiltzeko. Ongi izatea opa diegu
eta "agur" esanda geratu beharko gara
hemen, herrian, Santi, Mayi, Urko eta Zi-
gor, berriz, ongi ibili daitezela.

Ion

GOGOETAK

CANTABILE

Sarritan sartzen gara eztabaidan, ea letrako ikasketak ala zientziakoak diren meritorik haundiena daukatenak (edota interesgarrienak direnak). Ez genuke ordea geure hizkuntza (geure ama hizkuntza, edota, norberak pertsonalki landutako hizkuntza) hausi honetan sartu behar.

Norberaren ama hizkuntza behar bezala ikastea ez da letrako ikasketak egitea.

Ama hizkuntza ez da ikasten, esaterako, hitz-jarioa izateko ala idazle trebea izateko: horietarako berezko dohainak behar izaten dira, eta denok ez dugu gauza berdinetarako balio.

Aldiz, jakin erazi behar dena haxe da: erabiltzen ditugun hitz eta esateren mamia hobeto ezagutzen dugula, eta, beraz, barren-barrenean pentsatzen ditugunak, garbiago, txukunago, eta zehatzago azaltzen ditugula, ama hizkuntza menderatuz gero.

Irakasle guztiek, eta ez bakarrik euskara irakasten dutenek, irakatsi beharko lizkiekete ikasleei pentsatzen dutena ondo adierazten.

"¡Hable usted con propiedad!", esaten ziguten gaztetan irakasleek. Konforme. Baina hori lortzeko bideak erakutsi beharko zaizkie ikasleei.

Zeren hizkuntzaren egokitasuna eta zorrozatasuna beharrezkoak bait zaizkio hizlariari, baina bai eta fisikalarri, matematikalarri eta zientziagizonari ere.

Guadalupe Artola

BIHAR ARTE, IKURRIÑA

Bestaldean tiroz hil berria zuten "Txapela" izeneko gazte baten oroimenez landatu zuten Hondarribiko uretan ikurrin txiki bat, duela hiruren bat urte.

Espigoiko bidegalean.

Suertatu zen, txalupan alargunarekin batera horreraxe heldu zen gizona ezagutzen nuela. Donibane Lohitzunez geroztik, biok hemendik joanak. Ez genuen gauz askotaz berdin pentsatzen, baina biok abertzale euskaldunak gineenez, ez genuen besterik behar, eta maiz egoten ginen elkarrekin. Sendagilea zen, eta, Urdazuri auzo bertan bizi gineenez, dei egiten genion gaisotasunetan; ez dut gizon desinteresatu eta bihotz zabalagorik ezagutu.

Eta lagun egin ginen.

Oraindik hori ikusten dut txalupan alargun gazteari lagunten: eta jendea ibaiaren bestaldean eta jendetza hemen, denak kantuz.

Geroztik hori geratu zen ikurrin txikia ongi ainguraturik.

Nire eguneroko joan-etorrietan agurtzen nuen eraila izan zen gaztea, barrutik,

agurrak ongien bideiaratzen diren bidetik, eta betiko pelikula pasatzen zitzaizkan burutik: alargun gaisoaren estuasuna, Santi lagunaren nahigabea.

Santi ezagutu nuen garaiko egunak gogorrak ziren, Carrero-ren hilketa eta Franco-ren hiltzori luze-luze hartaraino: gaizteek ihesa larrietan iristen ziren hara, eta arropa, koltxoi eta sendagaien behar gorrian aurkitzen ziren; Santi ez zen geratzen, egunez, gauzez, gazteen nekeak, gaisotasunak eta zauriak sendatzen. Egun hauetako batean, gure herriaren egoera larriaz hikitzen ari ginelako gertatu zen Donibanen polizia espainolak errefuxiatuen aurka egin zuen eraso gogor bat. Esan nion, gauzez ibiltzerakoan arretatz egoteko, arren, orduan aitortu zidan heriotzari ez ziola beldurrik, kolpe bat batzuen minnez elbarritua geratzeari baizik.

Hil zen Franco; egin genituen etxeratzekoak noizpait; bakanka Bilbora joaten nintzanean ikusten genuen elkar; hark berean jarraitzen zuen politikan eta haurren sendagile bezala lanean, lehen bezain zintzo. Egun txar batez irratiz entzun

genuen bi mertzenari kontsultan sartu eta tiro gaizto-beltzez akabatu zutela.

Geroztik ikurrin txikia bi heriotza gogoratzen zizkidan.

Eta, egun batez, akabo ikurriña!... "Ez duk bakarrik joan!", esan nion nire buruari, eta tristetu ninduen ezkutuko bidaia maltzur hark. Baina egun batzu barru, hor zeok!... "Ez duk bakarrik etorri"... Eta hurrez gero joan-etorriak izan ditu ikurrin txiak.

Gaur bertan: atzo hor zegoena eraman dute berri!

Hala, denon aurrean "Txapela"ren oroimenez, Hondarribiko uretan Santi Brouard-ek alargunari laguntzen, bien artean uretan landatu zuten ikurrin txikia, gaueko misterioz egiten ditu joan-etorri lukeak, ez dakigu nora.

Gaur ez dago, bihar arte.

Martin Ugalde

SALMENTAK

— Haltzariak saltzen dira, sukaldetakoak ere bai. Tel. 642071.

LANAK

— Makinaz bordatzen dut.
Harma Plaza, 12. Tel. 644299.

ALOKAIRUAK

— Haltzaritutako etxebizitzak alokatzen dut. Tel. 613400.
— Moketa garbigailuak alokatzen ditut. Tel. 615541.

I. ALKAIN

Mertzeria - Ehungitza

Arrantzaile Auzoan, 13
HONDARRIBIA

TXUNTUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

ETXABURU'tar JOSE MARI

ONDARRIBIAKO KONDAIRA izeneko liburua argitaratu berria du gure herriko gizon jakintsua den Etxaburu'tar Jose Mari. Liburu mamitsua, irakurtzeko erraza, interesgarria eta polita. Euskara atsegina eta isuragia dario bere lumari liburuko 282 orrialdetan zehar.

Liburu osoak eragiten du irakurtzera. Bertan azaltzen ditu egileak herriko politika, eliza, gaztelua, Erriko-etxea, eliza nagusia, arresiak, gudak, pakeaketak, errege ezkontzak, kaiak, aste santua, alardea, bideak, egazkin zelaia, ospitala, kirol, zezen, musika, arrantza, nekazaritza, izkera, literatura oitura, siniskeriak eta esakerak, toki izen, gizon ospetsuak, etabat, etabari buruz atal irakurgarriak.

Zorionak Etxaburu'tar Jose Mari'ri, eta eskerrikasko euskaraz eman digun liburuko honegatik.

Mikel



HONDARRIBIKO OIHARTZUNAK TOLOSAN

Honezkeror herri guztiak badaki ESKI-FAIAk Tolosako Lehiaketan jasotako sariari berri; hau dela eta, lehiaketa honetaz zertxobait ikastea merezi duela uste dugu.

Aurtengoarekin, XVIII. edizioa zen. Bere hastapenetik gaur egun bitarteko bilkaera honetan, urtez urte jorritzen, zabaltzen eta aberasten joan da, honela kalitate mailak gorä jo du, eta lehiaketaren inguruen kultur ekinntza berriek ere badute euren lekua.

Egitariua osatzeko, zenbait kontzertu, mahai inguru etabat egiten da. Guzti hau antolatzeko, jende askok egiten du lan urtean zehar Tolosako CIT (Centro de Iniciativas Turísticas)en esanpean. Egun horietan Tolosan izan garenok jende mugimendu izugarria ikusi dugu, behar zen tokian dena prest egon zedin. Gaztediak hartzen du, batez ere, parte buru belarri.

Lehiaketaren irabazle

Lau ataletan banatzen da lehiaketa: gregorianoa, haur abesbatzak, ahots berdinak, eta nahasiak.

Guztira hogeiata hamar taldek kantatu dute, guztiak irabazteko itxaropenez. Hauetatik, zazpi Euskadikoak ginen.

HAURTZAINDIAGIAK

— Euskaraz eta erdaraz dakigun Institutuko 3n. mailako neskek gara, eta larunbat goizetan (9.30-13.30) eta gauetan (21-24) haurrak zainduko genituzke.

Tel. 644022, 643197, 643983 eta 642310, hiruretatik lauretara.

a) Gregoriano sailean, irabazleak Budapesteko BUDAFOKI KAMARAKORUS izan ziren; bigarren, poloniarrek, eta hirugarren, Iparraldeko Donazaharrekoak.

b) Haur abesbatzetan, Madrilgo Coro Virgen de Mirasierrakoak.

d) Ahots berdinetan, berriz ere BUDAFOKI b) urrezko dominak: polifoniano eta folklorea.

e) Ahots nahasietan, ESKIFAIAk b) urrezko dominak: polifoniano eta folklorea.

Garaipen honek gure herriko taldearentzat asko esan nahi du, askotan zaila delako norberaren herrian profeta izatea.

Kontzertuak

Santa Zezilia egunez, azaroaren 22an, Eskifaia hiru taldeek emango dute kontzertua Eliza Nagusian: Javier Bustok zuzentzen duen helduen taldea, Maite Oca zuzenduriko Txikiak, eta Emilio De la Linde zuzentzen duen hirugarren talde berriak.

ESKIFAIA TXIKIARI dagokionez, hil honen 28, 29 eta 30ean, Valencian Abesbatzen festibal batetara konbidatua izan da, eta bertara doa.

Gainera, abenduaren 5ean Pasaia San Pedron, eta 19an Zarautzen kantatuko dute.

Abenduaren 23an, ESKIFAIAk, Gabon Kantek osatzen duten egitarau bat abestuko du Eliza Nagusian.

Maribi Mariskal

IKASTARO BERRIAK

HAIZEHOTs espresio tailerrak berriro ere, eta etengabe ikusten denez, ikastaldi berria antolatzen du: **Aurkiketazkoa**, erritmoa, tresnen aurkiketa, orkestazio arazoak, etabar. Bortoleko Christophe DELMONDE emango du, azaroaren 22/23an, Sartakan.

Zehaztasunak nahi dituenak, Txun-txumela belardendari galde beza.

9/13 urte bitarteko haurrentzat, "antzerkijolasa"; gazteentzat "antzerki tailerra"; eta haur txikiarentzat, espresio eta sorketa ikastaldiak. Kurto osan emango dira.

HIZKUNTZAK

— Ingelesa eta frantsesa irakasten diet OHO, BBB eta UBIko ikasleak. Tel. 643507.


— Ingelesa. Santiago kalea, 41, 3.º. — Frantsesa naiz, eta frantsesez irakasten dut. Tel. 642202.

— Ingelesa. BBB eta O mailak. Santiago kalea, 3B-1.º. Tel. 642284.

MEI

Mertzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA



KULTURA

EUSKALDUNON
AHULEZIAZ
HONDARRIBIKO
TOKI-IZENAK
GALZORIAN

Kanpotik datorren euskaltzale baten-
tzat harrigarria ere bada Hondarrribian
bertako toki-izenek nabari den ahulezia.
Auzo, baserri eta toki-izen jatorrak poli-
ki-poliki aldatuaz eta galdiaz doaz.

Hondarribia izena bezala bereganatu
behar lituzke Udalak izen horien era
jatorrak. Batetik, kultur ondare direlako
eta, bestetik, euskaldunoi, lehendik beren
izen jatorrak dituzten parajeentzat **Kan-
piña, Montaña, Iterlimen...** entzutea
mingarri egiten zaigulako.

Agiri zaharretan, hiribildua osatzen
zuen kaletik aparteko herria, orokorki har-
turik: **Maala** edo **Madalena**, **Jaizubia** eta
Kornu zen. Bestalde, gure zaharrek,
ahoz, era honetara bereizten dute bertako
biztanlegoa: **kaletarra, portugarra** eta
baserritarra.

Okerra zuzentzen ahalegintzeko es-
kubidea denorik dagokigu, baina ahalme-
na eta eginkizuna hiriko agintariaren baitan
dago. Historiak ekarri dizkigun kultur on-
dasunen artekoa dugu toki-izena, eta, ho-
rregatik, zaindu beharrezkoa. Gainera,
hainbeste agiri eskaintzen dizkigun Flo-
rentino Porturen **Fuenterrabia** (1975)
monografia hor dugu gida-liburutzat la-
guagarri har genezakena.

Ezinezko eskariari oihuk maizegi en-
tzuten ditugu euskararen alde, baina ezer
guti egiten du euskaldun bakoitzak bere
hizkuntzaren erabilera eta jatorrasuna
gordetzen.

Otoi, arazo horietan ez dugu jokatu
behar erdara etsai baltiz bezala. Erdara
beharrezko zaigu eta errespeta dezagun.
Era berean Higer (Higer) bezalako toki-
izenak, hain zahar eta sustraiak dire-
nean, baldin zaharragorik eta jatorragorik
ez badugu aurkitzen, hala onartu behar
ditugu. Gaskoinen eraginak utzi zizkigun
ondare direnez gure kultur-historia osa-
tzen dute eta ez dugu ukatzerik, iraganen
lekuo aberasgarri denez.

Inor mindu gabe, erarik apalenean
berreskuratu ditzazkegu gure toki-izen ja-
torrak. Hortarako, **HONDARRIBIA** aldiz-
kari honetan txokotxo bat ematen bazai-
gu, hemendik aurrera zenbait zuzenketa
proposatuko ditugu.

Juan San Martin

KOSTERARI AGUR?


Urria guretzat zer izan den esateko,
nahiko ona izan dela aitortu behar. Bazi-
rudien azkenaldera, kostera erabat buka-
tu egingo zela, eguraldi txarragatik, baina
berriro ere arrantzak hasi ziren, eta,
arraina dagoen artean hori ibiliko gara.

Urriaren arrantza onak egin dira, baina
gaizki saldu, eta saldu gabe ere utzi dugu,
geroko batean saltzeko asmoz.

EGUNEROKO IZERDIZ

— **Urriak 1.** Hegamotz haundia ia erabat
galdu da. Tamaino txikiakoa bakarrik
ikusten da. 5 edo 6 kilokoa izan arren,
salneurri onean saltzen da. Gaur bazi-
ren 11.000 kilo, 290,90 pztan.

Hegaluzetik, haunditak 4.000 kg.
329,70 pztan. eta txikitak 2.500 kg.
321,20 pztan. saldu dira.



— **Urriak 2.** Dendetan gauza guztiak go-
ra, baina gure lana gero eta merkeago.
Atzotik gaurrera 70 pza. jeitsi da he-
gamotzaren salneurria. 24.000 kg.
saldu ditugu 231,90/213,40 pztan.

Hegaluzetik, 6.000 kg. sartu dira.

— **Urriak 3.** Joan zen urtean garai hone-
tan, kontserbetarako 400 pztan. ari
ginen saltzen hegamotoz: Gaur, 315
pztan. saldu ditugu 7.000 kg. arrain
haundia, eta 240 pztan. 13.000 kg.
txikia.

Hegaluzetik, txikia bakarrik atzematen
dugu, eta gaur 5.000 kg. saldu ditugu
prezio minimoan, 240 pztan.

Legazketarien 18 ontziek apenas da-
kare ezer, eta batzuk geratu egin dira,
beitarako ere egiten ez dutelako.

— **Urriak 6.** Gaur ere prezio minimotan,
310 pztan. saldu dira hegaluzeko
45.000 kg. oso urrutitik ekarriak. Ho-
rietatik 31.000 kg. ontzi batek bakarrik
ekarri ditu. Edera arrantza!!! Beste
12.000 kg. hegaluze txikia, 240 pztan.
saldu dira.

— **Urriak 22.** Izugarriko problemaz ari
gara, hegaluzea saldu ezinik. Joanda-
neko egunetan, 30.000, 40.000,
60.000 kg. aridira sartzen lonjan, eta
zer? Hiru lau mila kilo bakarrik saltzen
dira freskotarako. Beste guztia konje-
latzen ari gara. Kontserberoez ez dute
txintik erosten, fabrikak bete beteak
dituztela eta. Horrela, baditugu he-
men, Hondarrribian, 500.000 kg. kon-
jelatuta, kostera bukatuta gero saltze-
ko esperantza.

Bildur naiz, ordea, oraingo salneurri
minimoan (310 pza.) ere ez ote den
salduko gero. Joan zen urtean baino
aurten askoz gehiago atzeman dela
kontuan hartzen badugu, jakin ez zer
gerta daiteken.

Urriaren 19 ezkerro, flota guztia etxean
dago, eguraldi txarragatik.

— **Urriak 27.** Ontzi bat bakarrik sartu da
arrantzarekin, eta 15 kilotako hega-
motoz 5.500 kg. ekarri ditu, 460
pztan. salduz kiloa. Ez da prezio nor-
mala, baina kostera amaituz doala ja-
kinean, arraina erosi nahi duenak, pa-
gatu egin behar ondo!

Legazketariak geratu dira eta gorol-
dioa edo itsas-belarra (alga) jasotzen
ari dira badien. Badira goroldio ugari
ateratakoak, 50 pztan. saltzen delarik
kiloa. Oso estimatua dago, itxura de-
nez, itsas-belar hau, gero kosmetikoko
produktuak egiteko. Ibilian, Hondarri-
biko neska gazteak edertuko dira ber-
tako goroldioaz, Ovidoko fabrika ba-
tetik igaro eta gero.

— **Urriak 30.** Gaur hegamotozko 9.000
kg. 430 pztan. saldu dira; eta 1.500 kg.
hegaluze, 474 pztan.

— **Urriak 31.** Hilabete osoari agur egiten
ditugu, 15.000 kg. hegamotoz 280 pztan.
saldu. Merkeegi gauza onerak! He-
galuzea, 4.000 kg. saldu ditugu, 480
pztan.

Andres

ESKOLETAKO ORRIA

Hauteskundeetako inkesta

Ikastolako zortzigarren mailako neska-mutilak, paper eta boligrafoz eskue-tan, kalera atera dira, kazetari edo perio-dista antzera, eta hil honen 30ean izango diren hauteskundeei buruz, jendeari gal-dezka ibili dira, aldez aurretik itxura bat jakin nahian Hondarribian zein emaitza izango diren.

Haurrak eskolatik atera eta jende ar-tean sartzea oso aberasgarria da. Horre-gatik joaten dira sarritan baserritarra, lan-tegitara, kaletara, etabarr.

Oraingo honetan, hara zer jakin duten:

— 279 pertsonari egin dizkiete galderak.

- Nongoa zara? Zure adina?
a) Kanpotarra: 85 Bentakoa: 194
b) 15-20 urte = 52 20-35 urte = 77
 35-45 urte = 72 45-55 urte = 44
 55-65 urte = 34
- Ba al dakizu noiz diren hauteskun-deak?
Azaroak 3 = 10; azaroak 13 = 34;
azaroak 30 = 205;
datorren urtean = 30.
- Uste al duzu jendeak ez duela nahi politikaz hitzegi?
Bai = 119; Ez = 93; Ez dakit = 67.
- Jarraitzen al diezu berri politikoei?
Beti = 97; batzutan = 90; ez dut kasu-rik egiten = 91.
- Non iruditzen zaizu gehien hitz egi-ten dela politikaz?
Etxean = 93; kuadrilan = 136; lanto- kian = 60.
- Jendeak jarraitzen al die hauteskun- de kanpainei?
Bai = 105; batzutan = 117;
inoiz ez = 57.
- Politikoei kanpainetan agintzen du- tena, betetzen al dute gero?
Bai = 17; gehienetan = 27;
gutxitan = 68; inoiz ez = 167.
- Herriko udaletxearen lanarekin kon- forme edo ados al zara?
Bai = 63; erdizka = 89; ez = 73;
ez dakit = 54.
- Nola ikusten dituzu politikariak jen- deak dituen arazoetatik?
Oso hurbil = 25; hurbil = 56;
erdizka = 7; urruti = 96;
oso urruti = 95.
- Zein alderdik irabaziko du?
EAJ = 63; HB = 52; PSOE = 50;
EA = 17; EE = 11; AP = 7; Besteren batek = 18; Ez dakit = 61.



GURE ZENBAIT ERITZI

- Gure ustez, hauteskundeak beharrez-koak dira, jendearen eritzia zein den jakiteko.
- Jendeari ez zaio gustatzen ezezagunekin politikaz hitzegitea.
- Jendeak, nork irabaztea nahi duen, ez du agertu nahi; askok ez zuten eran-tzun nahi.
- Zenbait jendeak ez die hauteskundeei garrantzirik ematen, eta, hauteskun-detaz galdetzean, bildurrez erantzuten dutela uste dugu.
- Politikoa, nahiz eta abilak edo tre-beak izan, azkartasun hori ez dute he-rriaren nahiarako erabiltzen.
- Politikariak lehendakari izan nahi dute dirua irabazteko.
- Kanpainetan agintzen dutena ez dute betetzen politikariak, jendearen ustez. Guk ere halaxe pentsatzen dugu.

ALKATEA IZANGO BANINTZ

Alkate izango bagina, zer egingo genuke?

- Ni alkate banintz, jendearen eritzia entzungo nuke hitzez hitz.
- Bi hilabete egingo genituzke ikastoletan eta hamar berri oropretan.
- Txakurren jabeek hobe izango zuten poltsarekin paseatzia, zeren hori gabe ateratzia esango nuen debekatzea.
- Ni izendatuko banindute herriko alkate, denei erakutsiko nuzueke egiten karate.
- Ni Hondarribiko alkate, pobre guzietei emango diet txokolate.

- Gu alkate bagina, egongo ginen kakinia.
- Gu alkate bagina, egingo genuen ezina.
- Hondarribia ez da garbia batez ere, Kai Berria petroleo eta zikinzeria.
- Jarriko nituen aparkaleku, zeren kotxeak jaltzeko ez dago leku.
- Hondarribiko alkate banintz, "Hotel Kontxa"-n jarriko nuke lorategi bat beterik kabiz.
- San Pedro Kalean, jarriko nituzke jolastokiak, bertan jolastuko zuten mutiko eta neskatza guztiak.
- Bertsokak Doinua: Munagorrik diona.
- Ni alkate banintz herria primeran, kaleak oso txukun estadu onean. Lore ugari berriz lorategietan hondartzan altabozak euskara hutsean.

Atletismo pista on bat ez legoke gaizki bertan guk egiteko deporte ugari. Gazteek behar dute entretengarri nola Udaletxeak ez du hori igerriz?

Ikastola gurea oso da txikia bultzaka ibiltzen gera ail zer komeria. Ni alkatea banintz, hauxe da egia, egingo nuke orain etxe bat berria.

tek erdalundua hara hor alardean euskarara itzulia.

Erremedio hori, gaitza bera baino okerrago da.

XVII eta XVIII. mendeetan Jaizkibel-dik Higerrera arteko gailurretatik itsasalderako guzua zen Kornus, eta beste izen batez Mugirio bezala ezagutzen zena; orain "Montaña" bezala agertzen zaigu.

Bietarik zaharrena eta hedatuena, baserri batek bere memoria gorde diguna, Kornus dugu noski. Agian erromarren-gandik datorrigu, mendi-adarra edo itsas-adarra adieraziz, latinak erakusten digu-

nez. Baina baditeke bere atzizkia Akitanian hain hedatua den "-oz" izatea, zeren agiri zaharretan maiz irakurtzen bai da "Cornoz".

Historiagileek 1280ko guduan aipatzen dute Kornus, baina aurkitu dudak agiri zaharrena 1481eko da. Eta Kornus zeritzan lurralde hortan gerotzik erai-ki zen izen hori daraman baserria.

Zergatik ez bere izen jatorra itzuli? Hondarribia Udalak du azken hitza. Guk, helduden urteko alardean, "Kornus kon-pañia" pozago irakurriko genuke.

Juan San Martín

KORNUS edo MUGIRIO

Hondarribiko toki-izenen artean zaharrena edo zaharrenetakoa Kornus da.

Irailaren zortziko alardean ordea, txunditurik gelditu nintzen konpañia baten izentzat "Mendi auzoa" irakurtzeaz. Ez dakit noiz hasi ziren Kornusi "Montaña" deitzen, baina oso berria dela dirudi. Zeren joan zen mendearren hasierara arte Kornus edo Mugirio bezala ezagutzen bai zen. Eta, orain, joan zen mendetik norbai-

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

EZKONTZAK

IRAILAK

- 20: SANTIAGO Elduaien Bilbao - 25 urtekoa - Hondarribiarra.
ANA M.^a Perez Sardon - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.
- 26: JUAN JOSE Montero Bascaseau - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.
M.^a LOURDES Iraola Pellejero - 24 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
- 27: MIGUEL ALFONSO Sanz Aguado - 28 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
CRISTINA Uriarte Toledo - 25 urtekoa Bilbon jaio eta Hondarribian bizi dena.

URRIAK

- 4: JUAN M.^a Elvira Conde - 34 urtekoa - Pasaia jaio eta Errenterian bizi dena.
MARGARITA Sagazazu Mutuberria 27 urtekoa - Hondarribiarra.
- 4: JUAN AGUSTIN Sagardia Gragirena 30 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
ANA Elias Goikoetxea - 19 urtekoa - Hondarribiarra.
- 4: JESUS ANGEL Egurzegi Arnaiz - 26 urtekoa - Palencian jaioa eta Hondarribian bizi dena.
M.^a CARMEN Iza Indo - 24 urtekoa - Hondarribiarra.
- 4: JUAN M.^a Lasa Ulacia - 33 urtekoa - Tolosan jaio eta bertan bizi dena.
MARIA Berasategi Otegi - 28 urtekoa Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.

- 11: JUAN LUIS San Pablo de la Peña - 24 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
M.^a VISITACION Perez Fernandez - 23 urtekoa - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.
- 11: JOSE M.^a Gurutxet Tumas - 36 urtekoa - Hondarribiarra.
M.^a JUNCAL Irizar Beasain - Madriden jaio eta Irunen bizi dena.
- 11: RAMON Eceiza Perez - 28 urtekoa - Hondarribiarra.
M.^a PILAR Ugarte Errazkin - 29 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
- 18: JOSE IGNACIO Tomasena Zubietia - 27 urtekoa - Etxalarren jaio eta bertan bizi dena.
M.^a CRISTINA Losada Frieiro - 25 urtekoa - Santiago de Compostelan jaio eta Hondarribian bizi dena.
- 25: CANDIDO Diaz Vitoria - 28 urtekoa - Hondarribiarra.
M.^a TERESA Zapiain Iza - 30 urtekoa - Hondarribiarra.
- 30: MANUEL Meneses Jimenez - 30 urtekoa - Galdaren (Las Palmas) jaio eta Hondarribian bizi dena.
M.^a CORO Lertxundi Etxeberria - 31 urtekoa - Hondarribiarra.

JAIOTZAK

IRAILAK

- 30: NAIÁ Kerejeta Larrañeta Imanol eta Reginaren alaba.
Pasaia kalea - Oroitz bide.

URRIAK

- 3: MARTXEL Almandoz Gastón Santiago eta Isabelen semea.
Denda kalea, 7 - 1.^a.

- 5: OLATZ Perez Anzizar Jose Manuel eta M.^a Eugeniaren alaba
Semisarga auzoa - Zigarreneka.
- 4: ITSASO Agirrezabala Aristizabal Lorenzo eta M.^a Karmen alaba.
Mendelu - Erreka alde.
- 8: CAROLINA Ortega Luna Alberto eta M.^a Remediosen alaba.
Zuloaga kalea - C - 4.^a.
- 22: ASIER Sierra Etxebeste Luis eta Estherren semea.
San Pedro kalea, 38 - 2.^a.
- 26: ANDER Yanci ZUBILLAGA Pedro eta Mertzaren semea.
San Pedro kalea, 7 - 3.^a.

HERIOTZAK

URRIAK

- 2: FRANCISCO Soroa Muguruza 79 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Amute auzoa, 35.
- 12: VALENTINA Etxebeste Zapirain 53 urtekoa - Irunen jaioa.
Josu Langile, 8.
- 12: EPIFANIA Etxebeste Olaskoaga 78 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Denda kalea, 5.
- 17: Francisca EGUREN AYSTA 90 urtekoa - Bergaran jaioa.
Gebara-borda etxea.
- 21: ANSELMO Napal Lanas 78 urtekoa - Nafarroan jaioa.
San Gabriel egoitza.
- 22: NICOLASA Eizaguirre Genua 80 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Gure Txokoa etxea.

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA


Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR LIBURUDENDA

Didaktika jokoak Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA



Pizsina estaliar berriro ere

Esan eta esan, eta azkenean egingo da pizsina hau. Itsasoa badugula? Bai, eta zer? Guk pizsina ere nahi dugu eta behar dugu Hondarrribian. Negua datorrela? Hondartzan hotz egiten duela? Hor joango gara goxo goxo pizsinako ur epelera, eta nahi ez duenak ez dezala aprobeztatu.

Esan eta esan, eta oraingoan aurrera doa proiektua. Diputazioa laguntza eskatu da. 200.000.000 pezeta kostatuko da, eta herrian ez dago hainbeste dirurik. Di-

putazioak emango digu, ordea.

Fulboleko zelai ondoan egingo da. Ederra izango da, inongo inbidiarik gabekoa. Urriari izango da atzera edo aurrera egiteko garaia, zeren Diputazioak orduan erabakiko omen du dirua eman ala ez.

Zertarako pizsina? Udan emandako igeri ikastaroan, 800 ikasle izan dira. Garbi dago udazkena ezker, ezin dela igeri inon jarraitu, baina pizsina balego bai.

Iñaki


ARRAUNA

Lehenengo batean Santi Larzabalekin egin dugu topo. Han zihoan beti bezala, korrika, lanpetua...

—Kaixo, Santi, aurten zer?, jarraituko duzue neska-mutilekin?

—Jakina, bestela zer egingo lukete gure gazteek? Kalek kale beharrean, izerdia bota, lagunak egin, eta gure Hondarrribiko trainerurako arraunlariak prestatu, ahal bada.

—Agian trainerua prestatzea al da zure asmoa?



KIROL EKINTZAK AZAROAN

AZAROAK 9

Futbola

1n. regionala: Hondarrribia-Amaiak Bat
1n. infantil: Hondarrribia-S. L. Gonzaga

Saskibaloia femeninoa

Hondarrribia-Divino Maestro
AZAROAK 16

Futbola

2n. regionala: Hondarrribia-Beti Gatzte
1n. jubenila: Hondarrribia-Real Union

AZAROAK 23

Futbola

1n. regionala: Hondarrribia-Roteta
2n. jubenila: Hondarrribia-Landetxea

Saskibaloia femeninoa

Hondarrribia-C.B.F. Cruces
AZAROAK 30

Futbola

2n. regionala: Hondarrribia-Gure Txokoa
1n. jubenila: Hondarrribia-Mundaiz
1n. infantil: Hondarrribia-Real Union

ABENDUAK 7

Futbola

1n. regionala: Hondarrribia-Azkuene
2n. regionala: Hondarrribia-Oretea
2n. jubenila: Hondarrribia-Irurra

Saskibaloia femeninoa

Hondarrribia-La Blanca

—Bai, baina mutikoentzat arraunlari baino lehen ikasketak eta euskal giroa bultzatzea da.

—Zenbat gazte dabilta arraun kirolatan?

—Seniorretan batel bat, 8 lagunekin; jubeniletan, batela eta trainerilla, 12 lagunekin; kadeletan, batel bat, 6 lagunekin; infantiletan, bi batel eta 25 lagun; eta infantil-neskak, batel bat, eskolarteko txapelketan parte hartzeko.

—Nola konpontzen zarete gastuekin?

—Herriak ondo erantzuten du. Oraingoz pegatinekin moldatzen gara. Gero dendaren batek, taberna edo markaren batek lagunduko baligu, gutxienez txandak erosiko genituzke.

—Entrenamenduak noiz egiten dituzue?

—Larunbatero Mikel Tobar, Xabier Aristizabal, Iñaki Zalakainek eta nik, 9etik 12tara entrenatzen ditugu. Baldintzak hauek dira: 10 urte eginak, igerian jakin, eta aseguru egin.

—Eskerrikasko, Santi.

Juanjo eta Erramun

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobek

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

ARRATIBEL OKINDEGIA Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

GAZTEAK GARA

106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino azkoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.





Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak dauzkagu itxoiten guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoia eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



AURREZKI-KUTXA



MUNIZIPALA

UDALA

ZORIONEKO DIRUA!

1. Hiltzea ere ez da merkea, alajainak Hona hemen kanposantuko prezioak:

Zerraldoari lur ematea, 1.000 pzta.
50 urtetarako panteoia, 350.000 pzta.
10 urtetarako habia edo nitxo, 20.000 pzta.

10 urtetarako lurpean egoteagatik, 3.000 pzta.

Hil hondakinak aldatzea, 2.000 pzta.

Onena, hil ez, eta kito!

Baina bizi bagara ere, dirua kenduko digu Udalak hola edo hala. Begira zerrenda honi:

2. Matrikularik ez duten motozikleta guztiek, udal txeko txapa edo plaka beharko dute, 250 pezetakoa. Ez badiegu plaka jartzten 2.000 pezetakoa multo.

Ebazten badigute, eta 48 ordutan horren berri ematen ez badugu, beste 2.000 pezetakoa multa. Eta halakoak behin baino gehiagotan egiten badugu, 5.000 pezetakoa.

3. 8 zalditik beherako kotxeek: 1.550. 8 eta 12 bitartekoek: 4.325. 12 eta 16 bitartekoek: 9.190. Hortik gorakoek: 11.510.

4. 16 zalditik beherako traktoreek: 2.270. 16 eta 25 bitartekoek: 15.340. Hortik gorakoek: 9.070.

5. Remolkeek, 1.000tik 12.705raino, tamainoaren arauera.

6. Kamioiek:
1.000 kg. artekoek: 4.080.
2.999 kg. artekoek: 10.730.
9.999 kg. artekoek: 15.340.
Hortik gorakoek: 19.170.

7. Motozikleta txikiek: 380.
125 cm³ artekoek: 570.
250 cm³ artekoek: 970.
Hortik gorakoek: 2.880.

Ez izutu eta segi aurrera

Zabor bilketak

8. Etxeek, garaje publikoek, taller txikiak eta elkarteak: 2.850.

9. Hotelek, Pub-ek, dantzalekuek, supermerkatuek eta jatebakek: 14.700.

10. Beste denek, zerbitzu lokalek eta bulegoek: 4.950.

Eta txintxo txintxo ordaintzen ez badugu, 5.000 pezetakoa multa.

11. Dendetako edo tabernetako lehiotzat kanpora saltzeagatik, metro bate-raino: 11.550; eta hortik gorakoentzatz: 5.700 metro bakoitzeko.

12. Aulki, mahai eta antzerakoak kalean jartzeagatik, Butron eta San Pedro kalean, taberneek: 1.400 metroko, denek, 1.000 metroko.

Beste lekutan: 600 eta 400.

Leku horiek lorez edo itxi egiten badira: %50 gehiago, eta tejabanaz ezaltzen badira, %200.

*** Hondartzak dirua ematen dio Udalari udako partean. Datoek garbi erakusten dute hori, nahiz eta askotan beste itxura bat agertu. Aparkalekuo diruak 9.000.000 pezeta izan dira aurtan. Gastuak, berriz, aparkalekuaz zaintzeagatik: gehienez, 1.500.000 pzta**



*** San Nikolas kalea, eta "aste bidea" (Azken Portutik Mourlane Mitelena batzen dituen, alegia) laister ponduko ditu Udalak. Bi lan hauek egiteko, zazpi langile kontratatu ditu sei hilabeterako.**

SAN PEDRO KALEKO ARRAIN SALTZAILAEK

Zer gara? erromantikoak? Oroiten al zara nola egiten zuten ohia arrain saltzailak, orain hoge, hogeitabost urte arte? Gaur ez dugu ohiaurik entzuten. Gaur arrandegira goaz.

San Pedro kalean geratzen dira saltzaila banaka batzuk, txitxarro, arrosela eta txipiroak saltzen.

AI, baina ez pentsa lasai daudenik. Badira urte batzuk Asociación de Detallistas de Pescado-koek kartak bidali eta bidali ari dira azkeneko 7 urtetan gutxienez Udalara, salmenta mota hori galerazia dagoela eta ez lagatzeko San Pedro kalean arrainak saltzen. Orain arte Udalak ez die kasurik egin gutun horiei, baina orain notario bidez etorri dela, eta... aldatu egingo al du jarrera gure Udalak?

SANTIAGO EGUNEKO AZTARRENAK

Donostiako Juzgado de Instrucción nº 2-etik gutuna etorri da Udalara bi galdara eginaz. Lehenbizikoak galdetzen du ea Santiago egunez, Kutxa eguna zela eta jende asko zabilen kalean, eta ea baziren kalean andre, zahar, eta haurrik.

Bigarrenean galdetzen du, ea manifestazioaren garian, guardiazibilak sartu zirenean, manifestanteen kontra bakarrik eraso zuten ala beste jendearen kontra ere bai.

Udalak egia esaten badu, gauzak argitu egingo dira, zoritxarreko egun hartan gertatuari buruz.

ETXEBIZITZEN SALNERRIAK

Izua, panikoa, bildurra eta ikara sentituko duzu, etxebizitza behar duzula, eta gure herrian egiten ari diren prezioak galdetzen baduzu.

Deskuidatu ote zaren ere pentsatuko duzu, agian, baina ez, ez, zure belarriek ondo entzun dute: **20 milioi, 23 milioi, 28 milioi** ari dira eskatzen... Non? Bixkundi inguruan, jakin dugunez.

Bost urtetan 4 eta 5 bider garestitu dira Hondarribiko etxebizitzak.

Bitartean, Hondarribiko herrian 5.955 etxebizitza omen daudela jakiten dugu azkeneko erroldaren bidez, baina baita 5.955 horietatik, 2.329 hutsak daudela urte gehienera.

Gero gazteak herriatik alde egin behar-rean daudela. Nola ez ba?

HERRI BERTANEK asmatu zuen, gazte talde haundi bakoitza kooperatiba gien zuen, eta etxe sozialak egiten ari dira.

HAUTESKUNDETAKO MAHAIBURUAK

Azaroaren izango diren Eusko Legebiltzarreko Hauteskunderatarako herrian jarriko diren mahaiburuak, zozketa bidez izan dira izendatuak.

Hona hemen nortzuk diren: Jabier Goikotxea Soroa, M.^a Angeles Malvido Miguel, Fernando Gonzalez Casado, Jose Ignacio Gonzalez Martin, Pedro Sanz Lapitz Gonzalez, Pello Errazkin Ezpona, Anjel Fernandez-Cormenzana, Pz. de Villarreal, Ana Olazabal Zugasti, M.^a Carmen Cantero Perez, Jose M.^a Gera Eguren, Domingo Merino Merino, Jose M.^a Izaguirre Alonso eta M.^a Dolores Parada Vazquez.

Garikoitz

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udal txeko 642340 telefonora jo bez, edo bertara joan eta Euskara Azpizbatordeaz galdetu. Baita, Korreo-sentimen Udakal duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak.